



EUSKADIKO HIRUGARREN KULTURA-SEKTOREA PENTSATZEKO GAKOAK

KONTZEPTUZKO ESPARRUA ETA
ALORRERAKO HURBILKETA

Laburpen exekutiboa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LABURPEN EXEKUTIBOA

Lehen aldiz eskaintzen dio azterlan espezifiko bat Behatokiak hirugarren sektoreari, nahiz eta gaia saiheska ukitu izan den azterlan kualitatiboetan (hurbiltasuna, kultura-eskubideak edo itzulkin soziala) zein kuantitatiboetan. Azterlanaren asmoa zera da, Euskadiko hirugarren kultura-sektorea aztertzeke beharrezkoa den oinarri kontzeptualaren eta metodologikoaren ekarpena egitea.


Oro har, gune fisiko lauso eta aberatsa da **hirugarren sektorea**, eta etiketa ugari sartu daitezke bertan zer azpimarratu nahi den kontuan hartuta. Laburbilduta, fenomenorako bi hurbilketa identifikatu daitezke:

- Ikuspuntu europarra, ekonomia sozialaren kontzeptuari lotua, erakundeen dimentsio demokratikoa azpimarratzen duena. Logika kapitalistari erantzuten dion sektorearen eta sektore publikoaren arteko alternatiba bat da hirugarren sektorea.
- Ikuspuntu anglosaxoia, irabazi-asmorik gabeko sektoreari lotua, mozkinak ez banatzearen eta boluntariotzaren garrantziaren ideia abiapuntutzat duena. Merkatuaren eta estatuaren artean kokatutako esparrua dugu hirugarren sektorea.

Horrekin batera, irabazi-asmorik ez izatea ulertzeko bi modu daude:

- Zentzu finalistan, bere kideei edo kolektibitateari zerbitzuak emateko helburua irabazi-asmoen gaitetik dagoen neurrian, irabazi-asmorik gabeko erakundetzat hartzen dira.
- Mozkinen banaketari dagokionez, erakundearen barne-arauek jabe edo arduradunen artean mozkinen banaketa saihesten dutenean, ez-irabazizko erakundetzat hartzen dira.

Testuinguru horretan, formari eta helburuari dagokienez hirugarren sektorea karakterizatzen duten elementu erkideen multzoa identifikatzean datza erronka. Oro har, helburu publiko eta sozialak bezalako ezaugarriek duten garrantzia erakusten dute, baita izaera herritar, boluntario eta partizipatiboak, autonomia pribatuak, eta merkataritza-sektorearekiko eta sektore publikoarekiko lege-tratamendu desberdinak duten garrantzia ere.



5 irizpide hauek batera gertatzea nahikotzat eta beharrezkotzat hartzen da agente bat hirugarren sektorekotzat karakterizatzeke.

Xehetasun esanguratsuak dituzten dinamikak onestea eskatzen du **hirugarren kultura-sektorearen** eta haren agenteen errealtateak. Hirugarren sektorea hirugarren sektore sozialarekin identifikatzeko joera dagoen bezala, esku hartzeke bi esparru handitan pentsatzen dugu hirugarren kultura-sektorearen erreferentzia egitean: alde batetik, praktika amateurrarena eta herri-kulturarena, sustraitze eta tradizio handiarekin gure ingurunean adierazpen artistiko eta ondare-adierazpen jakin batzuetan, eta, bestetik, hirugarren sektore gisa formalizatutako sektorearen alderdi profesionalean, sektoreak kultura-sarean duen pisua ere garrantzitsua delarik. Haatik, begirada zehatzago batek hirugarren kultura-sektoreko erakundeak balio-katearen funtzio guztietan identifikatzea ahalbidetzen du, sektore guztietan, tamaina eta ikuspegi guztietakoak, tradizioetik abangoardiara, alderdi alternatibotik instituzionalizatutako alderdira, erakunde historikoetatik esku-hartze publikoko modu berriak aztertzen dituzten beste batzuetara.


Hirugarren kultura-sektorearen dibertsitate tipologikoaren errebasoak jarraitutasun bat ezkututzen du rol kolaboratzaile edo instrumental baten (zerbitzuen eta kultura-premien gogobetetzearen begiradatik) eta rol kritiko eraldatzaile baten (ahalduntzearen eta erreibindikazio sozialaren begiradatik) artean. Egungo erakundeen amalgama kontuan izanda, hirugarren kultura-sektorearen ezaugarri propioak identifikatzeko helburuarekin, azterketarako bi dimentsio uztartzen dituen eskema bat planteatzen da:

- **Jarduera-esparrua:** jarduten duten sektore gisa ulertuta, espezializazio- edo irekitze-maila desberdinekin, eta daukaten balio-katearen funtzioa.
- **Formalizazio-maila:** informaletik egituratura, zenbait formula juridikorekin eta antolamendu-mailarekin.

Datuei dagokienez, erabilgarri dauden neurketa-erreminten errebaso kritikoa egiten da, eta alorrerako hurbilketa bat egiten da erreminta horietan oinarrituta. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Ofizialaren azterketa bat inplikatzan du horrek, eta ondoren laburbiltzen dira dagozkion datuak:



EAEko kultura-eskaintzako hirugarren sektore profesionalaren azterketak, Kulturaren Euskal Behatokiaren Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikak ematen dituen datuak oinarri gisa hartuta, honako emaitza hauek ematen ditu:



Honako ondorio hau atera daiteke egindako azterketa kuantitatibotik: badira hirugarren kultura-sektoreari buruzko datuak, baina egituratuta dauden bezala ez dute ahalbidetzen sektorea bera karakterizatzea, ezta nahikoa ezagutzea ere.

Datuen ondoren, **diagnostikoa** azpimarratzen da, hirugarren sektoreak kultura-politiketan duen pisan eta presentzian ardatzen dena. Hirugarren kultura-sektoreko erakundeak kultura-politiken garapeneko eragile nagusiak dira. Esku hartzeko logika propioa dute eta funtsezko papera jokatzen dute hurbiltasun-politiketan, politikak lurraldean errotzen eta kultura-demokrazia ezartzeko aldekoa den ingurune bat sortzen. Sorkuntza, produkzioa eta emanaldia helburu duten egitura profesionalen artean ere ageri dira.

Administrazioaren maila guztiek egiten dituzte hirugarren sektoreari lotutako politikak, ñabardura desberdinekin bada ere. Hirugarren kultura-sektorea errealitate desberdinetako zenbait geruzaren batuketaren emaitza denez, kultura-politikekin lotutako arazo esanguratsuenak aztertzen dira.

- Erakunde profesionalen presentzia zuzenean egindako kulturari, eta, bereziki, arte eszenikoak. Erakunde horien garrantzia ez da beren pisu kuantitatibora mugatzen, eta, aitzitik, agente enblematikoenen zati esanguratsu batek formula asoziatiboak hartzen ditu.
- Oinarriko kultura deitutakoa, zeinaren sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko guneko kultura-praktikaren funtzio dinamizatzailea hirugarren kultura-sektorearen gune handia den. Kulturaren Euskal Behatokiaren EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkestari jarraikiz, 15 urtetik gorako biztanleriaren % 15,6k modu aktiboan parte hartzen du kultura-elkarteetan. Horrek esan nahi du hirugarren kultura-sektoreak 289.000 laguneko kolektiboa dinamizatu duela 2018an.

Zenbait gai orokorrek hirugarren sektorea hartzen dute eraginpean eta hesiarena egiten dute:

- **Finantza-hesiak.** Sektore publikoaren finantzaketa nahikoa ez dela uste da.
- **Giza baliabideak eta gobernantza.** Behar duten dedikazioak, gehi lan boluntarioaren inplikazioak eta erantzukizunak, kide berriak erakartzeko lana zailtzen du.
- **Kanpo-harremanak eta eskakizun burokratiko gehiegi.** Kontrol-mekanismoak gehitu egin dira, zama burokratikoa handia da eta beren helburuei balio gutxi gehitzen dieten zereginetarako dedikazio handiagoa inplikatzeko du.
- **Lurralde-eskala murriztak** eta **“minifundismorako” duen joerak** hauskortasuna, efizientziarik eza eta funts publikoekiko menpekotasuna eragiten du.
- **Teknologien inpaktuak** hainbat zailtasun eragiten ditu gizarte-sektore edo belaunaldi batzuetan.
- Nolabaiteko **tentsio-maila dago administrazioarekiko harremanean**, edo mesfidantzakoa zenbaitetan.
- **Gardentasunerako zailtasunak** eta kide guztien inplikazioa, eta **kapital sozialaren eta interes indibidualaren** arteko gatazka: elkarteen erabilera norberaren mesederako (informazioa, kontaktuak).

Diagnostikoa ez litzateke osoa izango fenomeno emergenteei ez bazaie arreta ematen. Alde batetik, erakunde informalek, alderdi alternatiboari eta praktika emergenteei lotutako sare eta agenteek, eta, bestetik, zeharkako proiektuetan lan egiten duten agenteen talde berri batek, gizarte-berrikuntzako modu berriak sortzen dituzte, haietako asko kultura-sustrai edo kultura-oinarrikoak, eta, beren ezaugarrien ikuspuntutik begiratuta, laugarren sektorea deitutakoan kokatu daitezke.

Azkenik, egindako azterketak eragindako **azken gogoetak** biltzen dituen kapitulu bat hartzen da barnean. Alde batetik, azterketaren inpaktua eta interes orokorreko helburuekin duen lotura. Alderdi horiek dira, hain zuzen ere, hirugarren sektorea agente garrantzitsu bihurtzen dutenak gizarte-aurrerabidean eta politika publikoen garapenean, sektorearen azterketa, sektoreari eman beharreko babesa eta sektorearekin izan beharreko lankidetzak justifikatzen dutenak.

Izan ere, hirugarren kultura-sektorearen balizko efektuei ematen zaien arreta deskriptiboa (zer ekarpen egiten du) zein baloraziozkoa edo normatiboa (hirugarren kultura-sektoreko zatitzat hartua izateko sozialki nahigarriak diren efektuak izan behar ditu) da. Hirugarren kultura-sektorearen balizko efektuen artean honako hauek daude:

- Gizarte-kohesioa (sareak eta nortasuna)
- Parte-hartzea eta ahalduntzea (kultura-demokrazia)
- Kultura-dukien demokratizazioa
- Gizarte-berrikuntza
- Interes kolektiboen defentsa

Edozein kasutan ere, hirugarren sektoreak beste agente batzuekiko duen posizio pribilegiatua definitzen duten faktoreek sektorearen beraren ezaugarri bereizgarriekin dute zerikusia:

- Hurbiltasunak errealitatearekin kontaktuan jartzen ditu, landa-agente gisa, hurbilekoak, ezagutzeko modukoak eta irisgarriagoak.
- Jarduteko duten askatasunak ere hobeto esperimentatzea eta jarduera administrazio-zurruntasunaren pisurik gabe garatzea ahalbidetzen die.
- Ez-irabazizko izaera, itzulkin sozialerako joerak (eta itzulkin ekonomikoaren garrantzi txikiagoa edo garrantzirik eza) errealitatera konpromiso sozial handiagoarekin hurbiltzea ahalbidetzen duenez.
- Aurrekoen konbinazioaren ondorioz, gizarte-legitimitate handiagoa dute, bere zereginaren garapena erraztuz.

Amaitzeko, etorkizuneko ideiak planteatzen ditu txostenak, kontuan izanda garrantzi handiko esparrua dela biztanleriaren kultura parte-hartze aktiboan, lurraldeko erakunde ugari inplikatzeko, hurbiltasuneko kultura-ekintzan funtsezkoa dela eta, bere alderdi profesionalean, pisu gero eta handiagoa duela.

Eskala globaleko eta toki-eskalako egungo politika orokorretako gai handiek honako oinarri hau dute: erkidegoek paper nagusi bat jokatzen duten ereduak. Kultura-politiketan hirugarren kultura-sektoreari zuzendutako ekintza koordinatu bat planteatzeko unea da.



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA